Lehenago esan bezala, egoera honi esker, inbertitzeko helburuak zehatz daitezke, erabaki eta burutzen diren ekintzak merkataritza-helburuekin ez ezik, baliabideekin ere bat etor daitezten. Horiek horrela, aipatu beharra dago eraikin berri bat (Parkeak berak sustatua (Bioteknologiako sektorerako) eraikitzen bukatu dela, beste eraikin bat eraikitzen hasiko dela, eta sustatu diren azken bi eraikinetako lokalak egokitzeko inbertituko dela. Azkenik, hirugarren faseari ekiteko (oraindik abiarazi gabe) alboko lursail batzuk erosi dira, ekitaldiko inbertsioak biribiltzeko.

- Berrikuntzaren, teknologia berrien eta enpresen arteko lankidetzaren aldeko apustua biziagotu da. Hauek dira estrategia honen ondorioz lortu direnak:
  - “Izartek” ekimenari ekiten jarraitzea. Arrakasta handia izan du ekimenak oinarri teknologikodun enpresak sortzen. Egitasmo berritzaileak, I+Gko jarduerak nagusi direnak, abiarazteko ekintza da.
  - Eusko Jaurlaritzaren “Biobask 2010” egitasmoa ezartzen ari izango gara elkarlanean. Bi eraikinetan, enpresak, Agentzia eta Euskadiako sektore bioteknologikoaren Ikerketa Kooperatiborako Agentzia eta Zentroa kokatuko dira, bioinkubadora bat eratzeke beharrezkoak diren pausuak eman dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera ekintzak burutuko dira, gure enpresa bioteknologiako nazioarteko bihurtzeko eta atzerriko enpresa-egitasmoak erakartzeko.
  - Infobusiness egitasmoari ekiten jarraitu da (informazio teknologi sektorearen barnean). Estatu espainoleko hainbat Teknologia Parkek eta Enpresa Berritzaileen Zentrok (EBZ) parte hartzen dute egitasmo honetan. Biobusiness on net egitasmoa abiarazi da (Bioteknologiaren eremuan). Ekintza hauek egiaztatzen dute oinarri teknologikodun enpresak eratzeke ekimenak abiarazten edo parte hartzen egiten dugun lana.
  - Aurreikusita zegoen bezala, “Ecopadev” izeneko Ikerketarako Europar Egitasmoa burutu da. Egitasmo hau hirigintza-plangintza industrial iraunkorrari buruzkoa da, eta hainbat Parkek, Ikerketa Zentrok eta Unibertsitatek parte hartu dute, eta Europar Batasunak finantzatzen du.
  - EHUKo bigarren Ikerketa Talde Sendotua (Neurozientziak Saila) geureganatu dugu, Parkean ikerketa-lanak egin ditzan. Horrela, Parkeko sektore bioteknologikoaren aldeko sinergiak sortu dira, eta aurrerapausoak eman dira, geroan Parkearentzat interesgarri izango diren beste talde batzuk koka daitezten.

- La contención de los gastos, que se han mantenido en los niveles previstos o por debajo, y ello a pesar del crecimiento de la actividad de la Sociedad.

- A pesar de que las previsiones de ampliación del Parque en su concepción actual (mediante la compra de terrenos y la construcción de nuevos edificios en Zamudio y Derio) impiden mantenerse en el escenario de autofinanciación plena, el nivel de endeudamiento financiero, tanto el actual como el que se estima en el futuro, es bajo.

A su vez, todo ello permite, como se mencionaba anteriormente, fijarse importantes objetivos de inversión, de manera que las actuaciones comprometidas y ejecutadas en cada momento estén ligadas, no sólo a los objetivos comerciales, sino también a la disponibilidad de recursos. En este sentido, destacan la finalización de la construcción de un nuevo edificio promovido por el Parque (destinado al sector Biotecnológico), el inicio de otro y la inversión en acondicionamiento de locales de los dos últimos edificios que se han promovido. Por último, la compra de algunos terrenos colindantes, necesarios para el desarrollo de la tercera fase (que aún no ha sido posible lanzar), han completado las inversiones del ejercicio.

- Intensificación de la apuesta por la innovación, las nuevas tecnologías y la cooperación empresarial. Consecuencias directas de esta estrategia son los siguientes logros:

- Continuar con Izartek, iniciativa de indudable éxito para la creación de Empresas de base tecnológica, como una importante actuación más en orden al desarrollo de proyectos innovadores y en los que primen las actividades de I+D.
- Colaboración activa en la implantación del Plan Biobask 2010 del Gobierno Vasco. Además de destinar dos edificios a acoger Empresas, a la Agencia y al Centro de Investigación Cooperativa del sector Biotecnológico en Euskadi, se han dado los pasos necesarios para la creación de una bioincubadora, y se han desarrollado acciones conjuntas con la Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno Vasco, en orden a favorecer la internacionalización de nuestras empresas biotecnológicas así como para atraer proyectos empresariales del exterior.
- Se ha continuado con el Proyecto Infobusiness (en el sector de las tecnologías de la información), en el que participan diversos Parques Tecnológicos y CEI's del Estado, y se ha puesto en marcha el Proyecto Biobusiness on net (en el ámbito de la Biotecnología), lo que una vez más acredita la intensificación de la labor de puesta en marcha o participación en iniciativas para la creación de nuevas Empresas de Base Tecnológica.
- Tal y como estaba previsto, se ha finalizado el Proyecto Europeo de Investigación Ecopadev, en materia de planificación urbanística industrial sostenible. En él han participado diversos Parques, Centros de Investigación y Universidades, contando con financiación de la Unión Europea.
- Se ha logrado atraer a un segundo Grupo Consolidado de Investigación de la Universidad (UPV/EHU - Departamento de Neurociencias), para que desarrolle su labor investigadora en el Parque, originando sinergias favorables para el sector biotecnológico del Parque y se han dado nuevos pasos para la radicación futura de otros grupos de interés.



- Era berean, Deustuko Unibertsitatearekin –Deustu Fundazioaren bitartez- ekintza interesgarriak sustatu dira, hala nola, hedatze teknologikoari buruko jardunaldiak antolatzea edo Parkeko aisia ekintzei buruzko ikerketa egitasmoan parte hartzea, pertsonen arteko harremanak, Ezagutzaren Gizarte batean ezinbestekoak, bultzatzearen.
- Azken finean, nabarmen biziagotu da Unibertsitatearekiko elkarlana, datozen urteotan ekingo zaion bidea.
- Aurrekoaz gain, Parkeak berak teknologia hedatzeko eta eskualdatzeko jardunaldiak antolatu ditu, esaterako, Ingurumeneko Adimenari buruzko Hitzaldia, nazioarteko lehen mailako txostengileekin. Parkeak, mota askotariko enpresatopaketak ere antolatu ditu, eta aurrean ere, ateak zabaltzeko eguna antolatu du, Zientzia eta Teknologiarenekin Europar Astearen barruan.
- Parkeko enpresentzat prestakuntzako egitasmo taldekatua taxutu, koordinatu eta burutuko da.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren irudi berria sustatu eta hedatu da. Euskal Parkeen eredia atzerrian imitatzeko esperientzia gisa esportatzeaz gain, erakundeetako, enpresetako eta ikastegiak 70 ordezkari inguratu dira Parkearen, gure Teknologia Parkearen eredia zuzenean ezagutzeko. Bisitei dagokienez, aipatu beharra dago aurreko urteetan baino ordezkari gehiago etorri dela. Gainera, biziki parte hartu da Parkearen ezaugarriak edo nolakotasuna hedatzen, hain zuzen ere, bertoko zein atzerriko hainbat eztabaida-lekutan zein biltzarretan txostenak aurkeztuz.
- Horiek horrela, atzerriko Parkeekiko harremanak sendotu egin dira; adibide gisa, Heidelberg-ko (Alemania) Teknologia Parkearekin sinatu den Hitzarmena.
- Lankidetzaren politika eta nazioarteko politika honen emaitza dugu Teknologia Parkeko Presidentea Zientzi eta Teknologia Parkeen Nazioarteko Elkarte (IASP) Europako Presidente izendatua izatea.
- Era berean, Estatu espainoleko beste Teknologia Parke batzuekin elkarlanean jarduten jarraitu da, APTE Elkartearen bidez. Elkarrekin Lehendakariordetza eta Idazkaritza gure ardurapean dago.
- Aktiboak ahalik eta gehien ustiatzeko, eta Teknologia Parke enpresak elkartzeko gune ez ezik, ezagutza eskualdatzeko eta teknologia zein berrikuntzaren kultura hedatzeko gune ere bilaka dadin, aipatu beharra dago zerbitzu orokorretan izan den erabilera-maila handia: esaterako, hainbat mintegi, biltzar eta bilera egin dira (1.100 bilera inguru, 28.000 lagun), eta garrantzi handiko ekitaldietan parte hartu da, batzuk arraz garrantzitsuak gizarte-mailan.
- Barne-kudeaketa hobetzen jarraitu da, eta ekintza hauek egin dira: informazio-sistemak etengabe eguneratu dira, gastua kontrolatu da, bare-prozedura guztiak aztertu dira, kanpo-zerbitzuak kontratatzeko eta kontrolatzeko moduak etengabe moldatu dira, hobekuntza-taldeen esperientziak izan dira...Hitz batez, emandako zerbitzuak eraginkorragoak eta hobeak izan dira.
- Igualmente, con la Universidad de Deusto, a través de la Fundación Deusto, se han promovido acciones de interés como son la organización de jornadas de difusión tecnológica y el desarrollo de un Proyecto de Investigación sobre actividades de Ocio en el Parque para favorecer las relaciones interpersonales fundamentales en una sociedad del Conocimiento.
- En definitiva, se ha intensificado de manera notable la colaboración con la Universidad, camino en el que se pretende seguir trabajando en los próximos años.
- Además, el propio Parque ha organizado diversas jornadas de difusión y transferencia tecnológica, entre las que destaca la Conferencia sobre Inteligencia Ambiental, con la participación de ponentes internacionales de primer orden. También, el Parque ha realizado encuentros empresariales de muy diversa índole, sin olvidar la celebración, una vez más, de la jornada de puertas abiertas, enmarcada dentro de la Semana Europea de Ciencia y Tecnología.
- Diseño, coordinación y ejecución de un nuevo Plan agrupado de Formación para las Empresas del Parque.
- Promover y difundir una nueva imagen de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En concreto, además de la exportación del modelo de Parques Vascos como experiencia a imitar en el exterior, destacar las más de 70 visitas recibidas de delegaciones institucionales, empresariales y académicas de distintos países, interesadas en conocer de primera mano el modelo de nuestro Parque Tecnológico, constatándose un fuerte incremento de las mismas respecto a años previos. Además, se ha participado activamente en la difusión de las características del Parque mediante la presentación de ponencias en diversos foros y congresos nacionales e internacionales.
- En este mismo sentido, se ha seguido estrechando lazos con diversos Parques a nivel internacional, destacando el Convenio firmado con el Parque Tecnológico de Heidelberg (Alemania).
- Como fruto de esta política de colaboraciones y de trabajo a nivel internacional, el Presidente del Parque Tecnológico ha sido elegido Presidente Europeo de la Asociación Internacional de Parques Científicos y Tecnológicos (IASP).
- Igualmente, se ha continuado con la colaboración con otros Parques Tecnológicos del Estado a través de la Asociación APTE, ostentando la Vicepresidencia y la Secretaría de dicha Asociación.
- En aras a conseguir el máximo aprovechamiento de los activos y que el Parque Tecnológico se convierta, no solo en lugar de encuentro de Empresas, sino en uno de los principales focos de transferencia de conocimiento y de difusión de tecnología y de la cultura de la innovación, es destacable el importante grado de utilización de sus servicios comunes. Así, merece especial mención la celebración de numerosos seminarios, convenciones, asambleas,... (aproximadamente 1.100 reuniones, con más de 28.000 asistentes) y la participación en eventos de enorme trascendencia, incluso social.
- Se ha continuado con el proceso de mejora de la gestión interna basada en: la permanente actualización de los sistemas de información, el control del gasto, la revisión de todos los procedimientos internos, permanente adecuación de los mecanismos de contratación y control de los servicios externos, la experiencia con grupos de mejora,... con la consiguiente mejora de la eficiencia y de la calidad de los servicios prestados.

- Esandako guztia Euskal Ekonomia etengabe hobetzearen helburuarekin bat dator: baliabideak eta balio erantsia sortzea, enpresa-ehuna dibertsifikatzen laguntzea, enplegua sortzea, enpresa traktoreak ezartzea, berrikuntzari eta garapen teknologikoari laguntza ematea...

#### 4) 2005. URTERAKO HELBURU OROKORRAK ETA HELBURUON KUANTIFIKAZIOA

##### 4.1. - 2005. Urterako Helburu Orokorrak

Euskal erakundeak apustu handia egiten ari dira Europarekiko elkarganatze teknologikoa lortzeko, Europar Batasuneko estatu guztien berdintasunerantz jotzeko. Honela, Teknologi Parkeak berrikuntzaren oinarri zein euskarri dira, 2005-2008. urterarako Zientzia, Teknologia eta Gizarte Egitasmoaren barruan, Euskal Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarearen (Saretek) ekile izanik. Erronkari ekiteko, ahaleginak zein baliabideak elkartu beharko dira Teknologi Parkearen jarduerak bere horretan jarrai dezan.

Are gehiago: 2003an baltzuren estrategiaren azken azterketa egin zenean, aldaketa kualitatibo handia gertatu zen: txosten honen 2. atalean azaldu den bezala, Parkeak, Zamudioko eta Derioko udalerrietan garapen eta kudeaketari ekiteaz gain, epe laburrean kokaleku berria egokitzeari eta abiarazteari ekin beharko dio, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-egoera ahuleko eskualde batean dagoena: Ezkerraldean, Abanto -Zierbenan.

Azken finean, baltzuak baditu erroka berriak, estrategikoak gehienak, ekitaldi bakar batean lortu ezin direnak. Gutxienez, 2005-2008. denboraldian ekin beharko zaie.

Jarraian, 2005. urterako helburu nagusienez arituko gara, lehenengo eta behin, helburu orokorrez. Helburuotatik ondorioztatuko dira dagozkien politikak edo ekintza-planak.

- Euskal Ekonomia etengabe hobetzen laguntzea, ondoren laburtuko den bezala:
  - Baliabideak eta balio erantsia sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat eta Euskal Sektore Publikoarentzat.
  - Enpresa-ehuna dibertsifikatzen laguntzea.
  - Euskadiko Ekonomian enpresa traktoreak izango direnak geureganatzea.
  - Enplegua sortzea.
  - Berrikuntzari eta Teknologia-garapenari laguntza ematea.
  - Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-irudia hobetzea, erkidegoan bertan zein kanpoan erakutsiz.

- A su vez, cuanto se ha citado está en consonancia con el objetivo de contribución a la mejora permanente de la Economía Vasca, lo que se traduce en la generación de recursos y de valor añadido, en la contribución a la diversificación del tejido empresarial, en la generación de empleo, en la implantación de Empresas tractoras, en el apoyo a la innovación y al desarrollo tecnológico, etc.

#### 4) OBJETIVOS GENERALES PARA 2005 Y SU CUANTIFICACIÓN

##### 4.1.- Objetivos Generales para 2005

La apuesta de las Instituciones Vascas por lograr la convergencia tecnológica con Europa se traduce en el importante papel de soporte a la innovación que se reserva a los Parques Tecnológicos en el Plan de Ciencia, Tecnología y Sociedad 2005 - 2008, habiéndose logrado la plena integración como Agente de la Red Vasca de Ciencia y Tecnología e Innovación (Saretek). Este reto obliga, sin duda, a concentrar esfuerzos y recursos para continuar orientando paulatinamente la actividad del Parque Tecnológico hacia ese ámbito.

Pero, lejos de conformarse con lo citado, una última revisión de la estrategia de la Sociedad durante el año 2003 provocó un salto cualitativo de enorme calado, de manera que, tal y como ha quedado expuesto en el apartado 2. de esta memoria, además de continuar con el desarrollo y la gestión del Parque en los Municipios de Zamudio y Derio, se habrá de enfrentar en el corto plazo al lanzamiento y acondicionamiento de un nuevo espacio físico en una de las denominadas zonas desfavorecidas de actuación urgente de la Comunidad Autónoma de Euskadi (la Margen Izquierda – Término Municipal de Abanto y Ciérvana).

En definitiva, la Sociedad debe enfrentarse a nuevos retos, la mayoría de carácter estratégico, y, por tanto, el horizonte temporal de los mismos no puede limitarse a un solo ejercicio. Se considera que, como mínimo, van a condicionar las actuaciones del período 2005-2008.

A continuación, comenzando por los más generales, se describen los principales objetivos para el año 2005, de los que, por tanto, se derivan las oportunas políticas o planes de acción.

- Seguir contribuyendo a la mejora permanente de la Economía Vasca, lo cual puede sintetizarse de la siguiente forma:
  - Generación de recursos y de valor añadido para la Comunidad Autónoma de Euskadi y para el Sector Público Vasco.
  - Contribución a la diversificación del tejido empresarial.
  - Atracción de Empresas tractoras para la Economía de Euskadi.
  - Generación de empleo.
  - Apoyo a la innovación y al desarrollo tecnológico.
  - Mejora de la imagen empresarial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con efecto demostración tanto dentro como fuera de la Comunidad.

- Ahaleginak eta baliabideak elkartzea, Parkearen jarduera, pixkanaka, ondorengoetan oinarri dadin:

- Ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia bultzatzea, eta berrikuntzaren kultura hedatzea.

- Oinarri teknologikodun egitasmo berriak sustatzea.

- Teknologi jarduera berriak erakarri, dibertsifikatu, garatu eta sustatzeko behar diren baliabide berriak abiaraztea.

- Parkeetako ekileen arteko lankidetzak areagotzea, atzerriarekiko informazioa eta harremanak erraztuz.

- Unibertsitateekiko eta Teknologi Zentroekiko lankidetzak-harremanak bultzatzea: Parkeek I+G+Bko proiektuetan, prestakuntzako berriarazko egitarauetan, ikertzaile-taldeak erakartzeko egitarauetan edota karrera-amaierako proiektuetan parte har dezaten.

- Baltzuaren barne-kudeaketa hobetzeko prozesuari ekiten jarraitzea: baltzuaren emaitzei eustea, bai eta egindako zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea handitzea ere. Horretarako, kudeaketa-politika egokiak ezarri beharko dira, beste neurri batzuen artean, erabateko kalitatearen bideari ekin behar zaio, baita Laneko Arriskuak Prebenitzeari, ingurumen-politikari eta erantzukizun sozialari dagokion politikari ere (azken bi hauek, jasangarritasunaren kontzeptu zabalagoaren barruan). Gainera, kudeaketaren informatizazio-maila eta prozesuen automatizazio-maila handiak lortu behar izango dira.

- Egungo tokiari edo inguru fisikoari dagokionez (Zamudio eta Derio), kutzako emari (cash-flow) positiboa lortzeko helburuari eutsi behar zaio, (ahal den neurrian, baita emaitza positibo lortzekoa ere), aktibo gehieneko ustiapenaren irizpidearen arabera.

Honen guztiaren arabera, hauek egingo dira:

- Ibilgetua egiten jarraitzea, baliabideak izateko: baltzuarentzat interesgarriak izan daitezkeen beste inbertsio-egitasmo batzuetan erabiltzeko.

- 2004. urtean eraikitzen hasi zen eraikin berria bukatuko dela aurreikusitako bada ere, lokal propioen okupazio-tasak handiak izan daitezkeen lan egin beharko da, eta horretarako, oraingoan ere, funtsezkoa izango da merkataritza-politika eraginkorri eta zuzenari ekitea, bezeroak izan daitezkeenekiko eta sustapen-erakundeekiko.

- Ahal den neurrian, politika egokiarekin jarraituko da, inbertsio berriak benetako premiekin bat etor daitezkeen. Hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar dira lursailen okupazio-tasa handiak. Parkearen lursailetan hirugarren fase bati berehala ekitea dakar egoera honek, eta, epe ertainera, beste zabalitze-fase bati ekitea. Azkenik, lokalen inguruan dauden aukerak direla-eta, komenigarria litzateke alokatuko den eraikin berri baten eraikuntzaren hasieraren plangintza egitea. Hau guztia dela-eta, lau inbertsio-mota aurreikusi dira: Zamudio eta Derion erositako lursailen ustiapen garbia, inguru horietan azpiegitura/urbanizazioak garatzea, 702 eraikina eraikitzen bukatzea, eta eraikin berri bat eraikitzen hastea zein alokatzeko lokalak egokitzea.

- Concentrar más esfuerzos y recursos para continuar orientando paulatinamente la actividad del Parque hacia:

- Fomentar la transferencia de tecnología y conocimiento y difundir la cultura de la innovación.

- Potenciar la promoción de nuevos proyectos de base tecnológica.

- Puesta en marcha de nuevos instrumentos necesarios para la atracción, diversificación, desarrollo y promoción de nuevas actividades tecnológicas.

- Intensificar la cooperación entre los distintos agentes de los Parques, facilitando información y contactos a escala internacional.

- Potenciar actuaciones de colaboración con Universidades y Centros Tecnológicos: participación directa de Parques en proyectos de I+D+I, programas específicos de formación, atracción de grupos de investigadores, impulso de proyectos fin de carrera, etc.

- Proseguir con el proceso de mejora de la gestión interna de la sociedad, lo que significa que, al tiempo de mantener los resultados de la sociedad, se trata de aumentar la eficacia y el nivel de calidad de los servicios prestados. Para ello, en aplicación de las políticas de gestión adecuadas, se debe continuar, entre otras medidas, con la apuesta por la senda de la calidad total, la de Prevención de Riesgos Laborales, la medioambiental y la de la Responsabilidad Social (estas dos últimas dentro de un concepto más amplio como es el de la sostenibilidad). Adicionalmente, habrá que procurar niveles crecientes de informatización de la gestión y automatización de los procesos.

- Mantener, en lo que al espacio físico actual se refiere (Zamudio y Derio), el objetivo del cash flow positivo (en la medida de lo posible, también del resultado), en base al criterio de máximo aprovechamiento de los activos.

En consonancia, las actuaciones seguirán orientadas a:

- Seguir realizando el inmovilizado, de manera que se puedan liberar recursos que se destinen a otros proyectos de inversión interesantes para la Sociedad.

- Aún cuando se ha previsto la finalización del nuevo edificio iniciado en 2004, intentar mantener elevadas tasas de ocupación de los locales propios, para lo cual, una vez más, va a resultar clave realizar una política comercial activa y directa ante clientes potenciales y ante Instituciones de promoción.

- En la medida de lo posible, se continúa con la política de acompañar la ejecución de nuevas inversiones a las necesidades reales. Sin embargo, conviene tener en cuenta las elevadas tasas de ocupación alcanzadas para los terrenos, circunstancia que, con carácter inmediato, obliga a lanzar una tercera fase sobre terrenos cuyo titular es el Parque y, a medio plazo, estudiar la posibilidad de abordar otra nueva expansión. Finalmente, las expectativas existentes sobre los locales aconsejan planificar el inicio de la construcción de un nuevo edificio destinado al alquiler. Por cuanto se ha citado, se han previsto básicamente cuatro tipos de inversiones: Aprovechamiento Neto de los Terrenos adquiridos en Zamudio y Derio, desarrollo de infraestructura/urbanizaciones en las zonas citadas, finalización del edificio 702 e inicio de un nuevo edificio y acondicionamiento de locales destinados al alquiler.

- Zorpetzea maila egokietan mantentzea (lehenaldian izandakoak baino txikiagoak). Epe laburrean berreskuratu ezin izango diren inbertsio-egitasmoei ekiteko premiaren ondorioz, ezingo dira bakarrik finantzatu jarduerak berak sortutako baliabideen bidez; ezinbestekoa izango da, beraz, aldi baterako zorpetzea.

- Kompromisoak legezko egitea eta lursail batzuez jabetzea, geroago, Ezkerraldean, Abanto-Zierbenan, hain zuzen, toki berria egokitzearen. Halaber, hirigintza-arloari dagozkion lehenengo urratsak eman beharko dira, hala nola, Plan Partziala edo Urbanizazio eta Kontentsazio proiektua prestatu eta aurkeztea, lursailok 2007. urtetik aurrera eskuragarri egon daitezkeen.

Esandakoaz gain, ezin dira alde batera utzi betiko helburuak, hala nola:

- Teknologi Parkearen irudia kalitatezko enpresa-gune batekin bat etortzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren irudia jakinaraztea.

- Erakunde arloan buru-belarri lan egitea (hainbat erakundetako ordezkarien bisitak, ...)

#### 4.2. - 2005. Urterako Helburuen Kuantifikazioa: Ekin beharreko Planak

Hauek dira 2005. ekitaldian ekin beharreko politika nagusiak:

##### Merkataritza Politika

Bi helburu daude: lokalen okupazio-indize handiei eustea, Parkearen eremuan lursailak erosteko asmoa duten enpresak erakartzea eta Ezkerraldean Teknologi Parkearen eraikuntza-proiektua arrakastaz abiaraztea. Bi helburuok erdiesteko, gogor lan egin beharko da merkataritza-arloan eta komunikazio-arloan. Horretarako, betidanik baltzuren bereizgarri zein euskarri izan diren sektoreetan modu proaktiboan jardun beharko da eta ekintza zuzenak burutu beharko dira. Aldi berean, sektore Bioteknologikoaren alde jardungo da, bai eta egoki deritzen alde ere, betiere, enpresa berritzaileekin edo goi-teknologiako enprekin zerikusia duten zereginetan.

Emaizta hauek lortu nahi dira:

- Lursailen 25.000 m<sup>2</sup> inguru saltzea, 4 milioi euro irabazteko.

- Azken 3 ekitaldian 3 eraikin eraikitzen bukatu bada ere, lokalen batez besteko okupazio-tasak % 85 inguruak izatea da asmoa. Honela, lokalak alokatzeagatik sarrera garbiak 4,28 milioi eurokoak izango dira.

- Teknologi Parkean kokatuta dauden enpresak 150 izatea, 6.000 lanpostu inguru sortzeko.

##### Inbertsio Politika

- Mantener el endeudamiento en niveles adecuados (inferiores a los alcanzados en el pasado). La necesidad de abordar proyectos de inversión cuya recuperación, a pesar de estar asegurada, no es factible en el corto plazo, no permiten continuar financiándose exclusivamente con recursos generados por la propia actividad, por lo que, de manera transitoria, resulta indispensable endeudarse.

- Formalización de compromisos y adquisición de una parte de los terrenos necesarios para el posterior acondicionamiento de un nuevo espacio físico en la Margen Izquierda (Municipio de Abanto y Ciérvana). Adicionalmente, deberán darse los primeros pasos necesarios en materia urbanística (preparación y presentación del Plan Parcial, Proyecto de Urbanización y Compensación, etc.), para que dichos terrenos puedan estar disponibles a partir del año 2007.

Por último, no se deben obviar otros objetivos tradicionales tales como:

- Mantener la imagen del Parque Tecnológico como asentamiento empresarial de calidad y promover la imagen de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

- Realización de importantes tareas en el área institucional (visitas de Delegaciones, ...)

#### 4.2.- Cuantificación de los Objetivos para 2005: Planes de Acción a emprender

Las principales políticas a acometer en el año 2005 son las siguientes:

##### Política Comercial

El doble objetivo de mantener la situación de elevados índices de ocupación de locales y de atraer a nuevas Empresas dispuestas a adquirir parcelas de terreno en el actual espacio del Parque y de garantizarse un lanzamiento exitoso del proyecto de construcción de un Parque Tecnológico en la Margen Izquierda, obligan a redoblar esfuerzos en materia comercial y de comunicación. Para ello, además de actuar de manera proactiva y con acciones directas sobre los sectores que tradicionalmente han caracterizado y han dado sentido a la actividad de la sociedad, se va a continuar con la apuesta del sector Biotecnológico y se pretenden abordar cuantos otros se consideren convenientes, pero siempre manteniéndose dentro del segmento de empresas innovadoras o de alta tecnología.

Los resultados a alcanzar son:

- Venta aproximada de 25.000 m<sup>2</sup> de parcelas de terreno, con unos ingresos de 4 millones de Euros.

- A pesar de que en los 3 últimos ejercicios se ha finalizado la construcción de otros tantos edificios, se pretende mantener las tasas de ocupación medias de locales en niveles cercanos al 85%, lo que permitirá obtener unos ingresos netos por arrendamientos de 4,28 millones de Euros.

- El número total de Empresas instaladas en el Parque Tecnológico se sitúe en 150, con un volumen de empleo cercano a los 6.000 puestos de trabajo.

##### Política de Inversiones

Lehen esan dugun bezala, orain arte Zamudion eta Derion izandako okupazio-tasak (lursailenak zein lokalenak) direla-eta, hiru ekintzari ekin beharko zaie gutxienez: epe laburrean, gaur egun Parkearenak diren lursailen hirugarren (Aresti sektorea) fase bat abiaraztea, ustiapen garbian eta urbanizazioetan inbertitzeko; 702 eraikina eraikitzen bukatzea, eta eraikin berri bat eraikitzen hastea, zerbitzuak eta enpresak (alokatuak) kokatzeko. Era berean, hainbat konpromiso hartu beharko da, Ezkerraldean Parke berria eraikitzeko erronkari ekiteko; esaterako, lursailak erosten inbertituko da 2006an.

Azken ekitaldian ez bezala –inbertsioak egiteko zenbatekoa eta unea benetako premietara egokitze irizpidea nagusitu da-, 2005. urtetik aurrera, epe laburrerako eskarira zuzenean lotuta ez dauden proiektuei ekin beharko zaie.

Esandakoarekin bat etorritz, beraz, inbertsioak ondorengo arabera izango dira:

- Zamudioko eta Derioko udalei ordainketa partziala egitea, egungo Parkearen III. faseko lursailen ustiapen garbia moduan, partzela urbanizagarri berrien stocka 245.000 m<sup>2</sup>-koa izan dadin.
- Hirugarren fasea (75.000 m<sup>2</sup>) osatzen duten partzela batzuk urbanizatzea, aparkatzeko toki berriak prestatuz. Jakina, behar dena baino azalera handiagoa urbanizatu behar da, Parkeak lursailen segurtasun stocka izan dezan beti. Azken finean, neurri honen bidez, lursail libreen stocka lortuko litzateke saltzeko (108.000 m<sup>2</sup>-tik gorakoa), eta Parkearen azalera urbanizatua guztira 798.000 m<sup>2</sup>-koa izango litzateke.

Dena den, lursailen eskari jakinaren arabera, inbertsio gehigarriak egin daitezke, aurretik ikusitako inbertsioez gain, urte bateko edo bi urteko epearen barruan inbertitutakoa berreskuratzeko asmoz.

Azpiegitura garatzea edo urbanizatzea partzeletara sartzeko bide nagusiak egitean datza; bideon bi alboetan lursail-zerrenda gordeko da zerbitzuen kanalizazioak egiteko. Azpiegitura-lan hauek egingo dira, besteak beste: euri-uren drainatze-sarea, gorotz-uren drainatze-sarea, hornidura-sarea, sute aurkako sarea, argiteria publikoaren sarea, energia elektrikoko sarea, kanalizazio telefonikoa, gas naturala hornitzeko sarea, kable edo zuntz optikoaren bidezko komunikazioak, bai eta lan osagarriak ere, partzelok zerbitzu guztiak izan ditzaten euren eskura berehala.

- Konpromisoak legezko egitea Ezkerraldean lursail batzuek jabetzeko (450.000 m<sup>2</sup> inguru, Abanto-Zierbanan).
- 702 eraikina eraikitzen bukatuko da.
- Parque Tecnológico, Teknologi Parkea, S.A. baltzuarena izango den beste eraikin bat eraikitzen hasiko da, bertan zerbitzuak eta enpresak (errentamendu-erregimenean) kokatzeko. Hain zuzen ere, eraikin honi dagokionez, 2005. urtean eraikuntza-proiektua egin beharko da, bai eta eraikuntza-lanak esleitu ere, 2006. urtean eraikitzen bukatzeko.

Tal y como se ha manifestado anteriormente, las tasas de ocupación alcanzadas hasta la fecha en Zamudio y Derio, tanto para terrenos como para locales, obligan a abordar al menos tres actuaciones diferenciadas: el lanzamiento a corto plazo de una tercera fase de terrenos actualmente propiedad del Parque (sector Aresti), con la consiguiente inversión en aprovechamiento neto y en urbanizaciones, finalizar la construcción del edificio 702 e iniciar la construcción de un nuevo edificio, destinado a servicios y a Empresas en régimen de alquiler. Adicionalmente, el nuevo reto de construcción de un Parque en la Margen Izquierda exige la adquisición de compromisos, cuya materialización dará lugar a importantes inversiones en adquisición de terrenos en 2006.

A diferencia de los últimos ejercicios, en los que ha prevalecido el criterio de acompañar la cuantía y el momento de ejecución de las inversiones a las necesidades reales, a partir de 2005 se requiere abordar proyectos no ligados directamente a la demanda a corto plazo.

En consonancia con lo citado, las inversiones concretas responden a lo siguiente:

- Desembolso parcial a los Ayuntamientos de Zamudio y Derio, en concepto del aprovechamiento neto de los terrenos que integrarían la fase III del actual Parque, de manera que se detente un stock de parcelas urbanizables nuevas equivalente a 245.000 m<sup>2</sup>.
- Proceder a la urbanización de una parte de las parcelas que integran la 3. fase (75.000 m<sup>2</sup>), habilitando también nuevas zonas de aparcamiento. Por supuesto, resulta necesario urbanizar una superficie mayor que la demandada en cada momento, de modo que el Parque detente siempre un stock de seguridad de terrenos. En definitiva, con esta medida se lograría disponer de un stock de parcelas de terreno libres y destinadas para su venta superior a 108.000 m<sup>2</sup>, al tiempo que la superficie urbanizada total del Parque se situaría en los 798.000 m<sup>2</sup>.

No obstante lo anterior, en función de la demanda concreta de parcelas de terreno, no se deben descartar inversiones adicionales a las previstas, existiendo una garantía de recuperación de la inversión en el plazo de uno o dos años.

El desarrollo de infraestructura o urbanización consiste en la realización de los viales principales de acceso a parcelas, viales que están provistos a ambos lados de una franja de terreno que queda reservada para las necesarias canalizaciones de servicios (Red de drenaje de aguas pluviales, Red de drenaje de aguas fecales, Red de abastecimiento y contra incendios, Red de alumbrado público, Red de energía eléctrica, Canalización telefónica, Red de abastecimiento de gas natural, Comunicaciones por cable o fibra óptica, etc.) u obras complementarias., de modo que las parcelas resultantes cuenten con todos los servicios y que su disposición operativa resulte inmediata.

- Formalización de compromisos para la adquisición de terrenos en la Margen Izquierda (aproximadamente 450.000 m<sup>2</sup> en Abanto y Ciérvana).
- Finalizar la construcción del edificio 702.
- Iniciar la construcción de un nuevo edificio propiedad de Parque Tecnológico, S.A., destinado a servicios y a Empresas en régimen de arrendamiento. En concreto, con respecto a este último edificio, será necesario redactar el proyecto y adjudicar las obras durante 2005, de modo que se complete la construcción en el año 2006.

- Alokatzeko lokalak (bioinkubadorea kokatuko da ere) egokitzen inbertituko da.
- Inbertsioak egingo dira instalazioetan eta komunikazioetako sistema aurreratuetan, Parkean kokatutako enpresei Teknologi Parkeek bereizgarri eta oinarri duten zera eskaintzeko. Era berean, balio erantsiko zerbitzu berriez hornituko da azpiegitura honen bidez.
- Ohizko inbertsioak eta inbertsio txikiak (altzariak) edota baltzuaeren barne-kudeaketa hobetzeko eta baltzuaeren eraginkortasuna handitzeko beharrezkoak izango direnak (ekipamendu informatikoak).

Hau da, 2005. ekitaldirako aurretik ikusten diren inbertsioak 15,96 milioi euro ingurukoak izango dira guztira.

## Finantza Politika

2002. eta 2003. ekitaldietarako kudeaketa-planetan azaldutakoaren arabera, eta behin autofinantzaketaren helburua gaindituz gero, altxortegiko soberakinak berrinbertsiorako erabiliko dira.

Kudeaketa-planotan, hain zuzen ere, horietaz ari zen: lursailetan berriz inbertitzea eta jarduera teknologiko berriak erakarri, dibertsifikatu, garatu eta sustatzeko behar diren baliabideak edo oinarriko azpiegiturak abiaraztea omen ziren funts hauen helburu egokienak.

Horiek horrela, planotan adierazten zen ezinezkoa zela Parkearen zabaltzea eta hedatzea gehiago geroratzea, eta aldi berean, eraikin berriak eraiki behar zirela. Behar-beharrezkoa zen, beraz, epe luzerako aurreikusten ziren inbertsio-egitasmoei ekitea, egoera honek eragozten baitzuen jarduerak berak sortutako baliabideez bakarrik finantzatzea (aldi baterako zorpetu beharra zegoen).

Azken finean, Parkearen gaur egungo egitasmoari dagokionez, aurreikuspenak bete egin dira, baltzua 2005. urtean ere zorpetu beharko da eta (2 milioi de euroko zorra).

Baina, kontuan hartzen badugu Ezkerraldean egingo den apustua, etorkizunean beharrezkoa izando da baltzua baliabide gehigarriez hornitzea, eta horretarako, bi bide erabili beharko dira: kapital-gehikuntza eta beste zorpetze bat (2006. urtetik aurrera). Hain zuzen ere, 2005. ekitaldirako aurrez ikusi da 1,335 milioi euroko kapital-gehikuntza egitea, lursailak erosteko konpromisoak legezko egiteko.

Ekonomiaren ikuspegitik, eraginkortasuna hobetzeko irizpideari esker –sarrerak handitzen eta gastuei eusten edo gutxitzen-, errentagarritasun positiboko egoerak lor daitezke.

## Langileen Politika

Baltzua erabat sendotua badago ere, kontuan hartu behar da honako hauetan buru-belarri sartuta dagoela Parkea:

- Aro berri batean dago, eta aro berriak hau du bereizgarri: Teknologi Parke baten helburu sozialaren berezko zati diren egitekoetarantz bideratu behar dira baltzuaeren jarduerak pixkanaka.

- Inversiones en adecuación de locales destinados al arrendamiento (incluyendo los que ocupará la bioincubadora).
- Inversiones en instalaciones y sistemas avanzados de comunicaciones, hecho que se enmarca en la necesidad de ofrecer a las Empresas un elemento diferenciador básico y característico de los Parques Tecnológicos. Asimismo, será necesario dotar de contenidos y proveer nuevos servicios de valor añadido a través de esta infraestructura.
- Inversiones de carácter más rutinario y de escaso volumen (mobiliario) o aquellas que resultan necesarias para lograr mejorar la gestión interna y aumentar la eficiencia de la sociedad (equipos informáticos).

En su conjunto, las inversiones previstas para el ejercicio 2005 ascienden a 15,96 millones de Euros.

## Política Financiera

De acuerdo con lo reflejado en los Planes de Gestión de 2002 y 2003, superado el objetivo de la autofinanciación, los excedentes de tesorería habrían de ser destinados a la reinversión.

En concreto, se hacía mención a que, tanto la reinversión en terrenos, como la puesta en marcha de nuevos instrumentos o infraestructuras básicas necesarias para la atracción, diversificación, desarrollo y promoción de nuevas actividades tecnológicas, parecían ser los destinos más idóneos para estos fondos.

En este sentido, se aseguraba además que resultaba imposible aplazar por más tiempo la expansión del Parque, debiendo, en paralelo, construir nuevos edificios. Por tanto, era necesario acometer proyectos de inversión cuya realización se preveía en el largo plazo, circunstancia que impedía continuar financiándose exclusivamente con recursos generados por la propia actividad (iba a ser necesario endeudarse transitoriamente).

En definitiva, en lo que al actual proyecto de Parque se refiere, las previsiones se han cumplido, de modo que la Sociedad habrá de endeudarse nuevamente en el año 2005 (por valor 2 millones de Euros).

Ahora bien, teniendo en cuenta la nueva apuesta en la Margen Izquierda, en el futuro será necesario dotar de recursos adicionales a la Sociedad por dos vías: Ampliación de Capital y Nuevo Endeudamiento (a partir de 2006). En concreto, para el ejercicio 2005 se ha contemplado una ampliación de capital por valor de 1,335 millones de Euros, cuyo destino será la formalización de compromisos de compra de terrenos.

Desde la óptica económica, el criterio de la mejora de la eficiencia, aumentando los ingresos y conteniendo o minimizando los gastos, permite seguir contemplando situaciones de rentabilidad positiva.

## Política de Personal

A pesar de tratarse de una sociedad totalmente consolidada, debe tenerse en cuenta que está inmerso en:

- Una nueva era, que se caracteriza por la necesidad de orientar paulatinamente sus actuaciones hacia tareas que forman parte intrínseca del objeto social de un Parque Tecnológico.

- Egungo tokia lehenengo zabaltze-egitasmoan dago (III. fasea abiaraztea); egoera honen arabera, gehigarriko langileria behar izango da.

- Munta handiko bigarren zabaltze-egitasmoan dago Parkea (bigarren tokia abiaraztea); inolako zalantzarik gabe, egoera honek lehen esandakoa sendotzen du.

Era berean, aipatu beharra dago baltzuaren politika dela-eta, behar-beharrezkoa dela langileak prestatzeari eta trebatzeari buru-belarri ekitea.

### Berrikuntza Arloari dagokion Politika

Hauek dira Berrikuntza Arloaren helburu nagusiari eusten dioten ekintzak:

- Oinarri teknologikodun enpresen inkubadoreak (batez ere, egun dagoen Bioinkubadorea) abiarazi eta kudeatzea.
- Teknologi Parkeko enpresei enpresa-sustapeneko baliabideak eskuratzen laguntzea. Bai eta finantzaketa eta kapital hazia edo antzekoa bilatzen laguntzea ere.
- Jarduera teknologiko berriak erakarri, dibertsifikatu, garatu eta sustatzeko baliabideak abiaraztea.
- Oinarri teknologikodun egitasmo berriak sustatzea.
- Parkeetako ekileen arteko lankidetzak areagotzea, atzerriarekiko informazioa eta harremanak erraztuz.
- Unibertsitatearekiko eta Teknologi Zentroekiko lankidetzak sustatzea: Parkeek I+G+Bko egitasmoetan eta prestakuntzako berriazko egitarauetan zuzenean parte har dezaten, edota ikertzaile-talde berriak erakar ditzaten.
- Parque Tecnológico, Teknologi Parkea, S.A. baltzuaren lokaletan enpresa-bilerak egitea, eta topagune, topaketa, biltzarretan-eta parte hartzea, teknologia- eta ezagutza-transferentzia sustatzearen, eta berrikuntza-kultura jakinaraztearen.
- Zerbitzuetan diharduten enpresei Teknologi Parkean kokatzea erraztea, bertan daudenen lagungarri izan daitezkeelako.
- Komunikazioen sistemak etengabe egokitzea, enpresei haien artean eta Teknologi Zentroekin zein Unibertsitateekin konektatzeko sareak eskainiz.

### Erakundeak Arloari dagokion Politika

Betidanik lan egin da Parkean erakundeak esparruan. Era berean, ekitaldi honetan ere buru-belarri egingo zaio erakundeak lanari. Hauek dira egingo diren ekintza nagusienak:

- Baltzuaren eratzearen XX. urteurrena ospatzeko ekitaldiak.
- Nazioarteko ekitaldi bat, Parke Zientifiko eta Teknologikoen Nazioarteko Elkarte (IASP) Europar Presidentziaren barruan kokatzen dena.

- Un primer proyecto de expansión dentro del actual espacio físico (lanzamiento de la fase III), lo que, por sí mismo, obligaría a contar con personal adicional.

- Un segundo proyecto de expansión de gran envergadura (lanzamiento del segundo espacio), lo cual, sin duda, refuerza la anterior afirmación.

Adicionalmente, es preciso mencionar que la política implantada por la sociedad refuerza la necesidad de realizar importantes y crecientes esfuerzos en materia de formación y capacitación del personal.

### Política del Área de Innovación

La misión fundamental de esa área se concreta básicamente en las siguientes acciones:

- Puesta en marcha y gestión de incubadoras de Empresas de base tecnológica (especialmente la actual Bioincubadora).
- Facilitar el acceso de las Empresas del Parque Tecnológico a los instrumentos existentes de promoción empresarial. Asimismo, colaborar en la búsqueda de financiación y capital semilla o similar.
- Puesta en marcha de nuevos instrumentos necesarios para la atracción, diversificación, desarrollo y promoción de nuevas actividades tecnológicas.
- Potenciar la promoción de nuevos proyectos de base tecnológica.
- Intensificar la cooperación entre los distintos agentes de los Parques, facilitando información y contactos a escala internacional.
- Potenciar actuaciones de colaboración con Universidades y Centros Tecnológicos: participación directa de los Parques en proyectos de I+D+I, programas específicos de formación, atracción de nuevos grupos de investigadores de interés, etc.
- Celebración, en los locales de Parque Tecnológico S.A., de múltiples reuniones empresariales y participación activa en foros, encuentros, eventos, etc. de interés, todo ello en aras a lograr las metas de fomentar la transferencia de tecnología y conocimiento y de difusión la cultura de la innovación.
- Facilitar la ubicación en el Parque Tecnológico de Empresas de servicios a Empresas, que puedan ser de utilidad para las ya instaladas.
- Permanente adecuación de los sistemas de comunicaciones, ofreciendo a las Empresas redes que permitan interconexiones entre ellas y con los Centros Tecnológicos y Universidades.

### Política del Área Institucional

Desde el Parque se ha venido desarrollando tradicionalmente una importante labor en el ámbito Institucional. De igual modo, para el presente ejercicio se han previsto al menos las siguientes acciones:

- Actos de celebración del XX Aniversario de la constitución de la sociedad.
- Un evento de carácter internacional enmarcado en la Presidencia Europea de la Asociación Internacional de Parques Científicos y Tecnológicos (IASP).

- Parkera inguratzen diren erakundeetako edo enpresetako ordezkariak arduratzea, Euskal Autonomia Erkidegotik bertatik datozenek zein atzerrikoek.
- Teknologi Zentroetako edo Zentro Akademikoetako ordezkariak arduratzea.
- Parkearen irudia eta lortutakoak jakinaraztea, bertoko, estatuko edo atzerriko jardunaldi eta biltzarretan txostenak aurkeztuz.
- Erakundeetako ekitaldietan Teknologi Parkearen ordezkari izatea.

### **Mantentze Arloari dagokion Politika**

Parkea zaintzeari dagokionez, hauek dira egin behar diren zerbitzuak:

- Lorezaintza
- Garbiketa eta desinfekzioa
- Mantentze mekanikoa, elektrikoa eta arotzeria
- Telefonía eta komunikazioen gainerako zerbitzuak
- Beste gremio batzuk konponketak
- Hornikuntzak kudeatu eta ordaintzea
- Segurtasuna, jagoletza, etab.

Batzuetan, zerbitzuen kostua garestitu daiteke, egiten diren lanen arabera. Hala eta guztiz ere, ez da aleko hazkunde handirik aurreikusten.

### **Lehia-Hobekuntza Aurrerakoari dagokion Politika**

Teknologi Parkeen mailaren ikuspegitik, hain zuzen ere, Bizkaikoaren ikuspegitik, eta azken ekitaldietan antzeman diren hobekuntza-aukerak direla bide, hobekuntza aurrerakorrari ekiteko plana abiarazi da. Erroka eta ekintza hauek ditu oinarri gaitasmoak:

- Goi-teknologiako enpresak kokatzen zein garatzen erreferente izaten jarraitzea.
- Teknologi Parkearen zentralitatea bultzatu eta, batez ere, hobetzea. Horretarako, ekintza batzuk egingo dira, komunikazioetatik ondorioztatzen diren arazoak behar bezala konpontzeko (irigarritasuna, garraio publikoa, etab.), erakundeen eskura jarriz, lurraldeko geroko garapenen plangintzan eragina duten eztabaida-lekuetan parte hartzeko. Era berean, enpresak zerbitzu berriez hornitzeko lan egingo da, autonomia nahikoa izan dezaten. Sare telematikoa etengabe egokituko dira.

## **5) GASTUAK ETA INBERTSIOAK LURRALDEEN ARABERA**

Parque Tecnológico, Teknologi Parkea, S.A. baltzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten ditu bere gastu eta inbertsio guztiak, hots, gastuen eta inbertsioen % 100.

- Atender visitas de delegaciones de Instituciones o Empresas de dentro y fuera de la Comunidad Autónoma de Euskadi, especialmente las de carácter internacional.
- Atender visitas de delegaciones de Centros Tecnológicos o académicos.
- Difundir la imagen del Parque y los logros obtenidos, mediante la presentación de ponencias en jornadas y conferencias de ámbito local, estatal e internacional.
- Representar al Parque Tecnológico en actos institucionales.

### **Política del Área de Mantenimiento**

Se deben seguir cubriendo eficazmente los servicios de:

- Jardinería
- Limpieza y desinfección
- Mantenimiento mecánico, eléctrico y carpintería
- Telefonía y resto de servicios de telecomunicaciones
- Gremios y reparaciones varias
- Gestión y pago de suministros
- Vigilancia, etc.

El coste de los servicios, en algunos casos, puede verse incrementado en volumen, por el mayor nivel de actividad que se plantea. Sin embargo, no se prevén crecimientos significativos en términos unitarios.

### **Política de Progresiva Mejora Competitiva**

Como consecuencia de las oportunidades de mejora que, desde el punto de vista de la posición competitiva de los Parques Tecnológicos en general y del de Bizkaia en particular, se han ido detectando a lo largo de los últimos ejercicios, se continúa con el plan de mejora progresiva, centrado en los siguientes retos y actuaciones:

- Seguir siendo referente obligado en la implantación y el desarrollo de Empresas tecnológicamente avanzadas.
- Potenciar y mejorar la centralidad del Parque Tecnológico, para lo que el Parque colaborará en la búsqueda de soluciones adecuadas a los problemas derivados de las comunicaciones (accesibilidad, transporte público, etc.), ofreciéndose a las Instituciones a participar en los foros de decisión con influencia en la planificación de los futuros desarrollos territoriales. Asimismo, se trabajará para dotar de nuevos servicios a las Empresas, alcanzando una autonomía suficiente, y se adecuarán permanentemente las redes telemáticas.

## **5) CLASIFICACION TERRITORIAL DE GASTOS E INVERSIONES**

La sociedad Parque Tecnológico, S.A. realiza el 100% de los gastos e inversiones en el Territorio Histórico de Bizkaia.



**6) 2005. URTERAKO AURREKONTUA****6.1. - Kapitaleko Aurrekontua**

Hauek dira alderdi esanguratsuenak:

- Ibilgetu materialean egindako inbertsioak, txosten honen 4.2. atalean zehazten denaren arabera.
- Lursailak saldu diren arren, eta amortizazio-funtsera zuzkidurak egin badira ere, baltzuaeren ibilgetu garbia 2004. ekitaldikoa baino handiagoa da. Horrela gertatzen da aurreikusitako inbertsio handiak direla medio.
- Amortizazio-funtsera egindako zuzkidurak 2,79 milioi eurokoak dira, eta honek, ibilgetuagatiko beherakadekin batera, 2,65 milioi euroko amortizazio-funts metatuaren gehikuntza garbia dakar.
- 1,335 milioi euroko kapital-gehikuntza, Ezkerraldean lursailak erosteko konpromisoak legezko egiteko.
- 2 milioi euroko zorpetze gehigarria; aldi berean, lehenago egindako zorrak (0,5 milioi) amortizatuko dira.
- Aurrekontuaren ikuspegitik, ekitaldiko sarrera eta gastuen arteko aldea positiboa izango da, 0,98 milioi euroko mozkinak izango dira.
- Bi dira kapital zirkulatuaren aldaketaren (8,33 milioi euroko murriztapena) eragileak, bi mugimendu-mota, elkarren kontrako norabidean dihardutenak: alde batetik, altxortegiaren saldoaren murriztapen handia (7,72 milioi euro). Beste alde batetik, hartzekodunen saldoaren kopurua txikiagotzeak eta Ogasun Publikoarekiko saldo zordunak agertzeak (inbertsioen BEZa) partzialki berdintzen dituzte lehenagoko mugimenduak.
- Kontabilitate-plan Orokorraren higiezin agentzientzako egokitzapen-arauekin bat etorriz, ibilgetua besterentzeak "ustiapen" aurrekontuan du kontabilitateko isla, izakinen kontutik igaro ondoren.

**6.2. - Ustiapeneko Aurrekontua**

